

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4743

AGINDUA, 2012ko urriaren 17koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, aditzera ematen da fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeei 2012. urtean emango zaizkien laguntzen guztizko zenbatekoa.

Fruta eta barazki-ekoizleen antolakundeentzako laguntzak fruta eta barazkien sektoreko merkatu antolakunde bateratutik (MAB) datoz, Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan. Gaur egun, bi laguntza-mota daude: onartutako ekoizle-elkarteentzako erkidego-laguntza eta erakunde horientzako laguntza nazional osagarria.

Arlo horretako MAB arautzen duen erkidego mailako araudiaren azken aldaketaren ondotik, Euskal Autonomia Erkidegoan 30/2010 Dekretua argitaratu da (urtarrilaren 26ko Dekretua, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duena). Dekretu horrek indargabetu eta ordeztu egin ditu laguntza horiek aurretik arautzen zituzten arauak: 228/1997 Dekretua, urriaren 14koa, eta 56/2000 Dekretua, martxoaren 21koa.

Nahiz eta eskabideak aurkezteko epeak modu mugagabeen dauden ezarrita erkidego-araudian eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuan (beranduenera jota hurrengo urteko otsailaren 15ean, alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere), dekretu horren beraren 25.4 artikuluko ezartzen du urtero emango dela jakitera agindu bidez dena delako urte horretan guztira zenbateko laguntzak emango diren fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeetara.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntzen zenbatekoa.

Guztira, 2012. urterako, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duen urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 22. artikuluko 1. paragrafoaren a) eta b) idatzi-zatietan aurreikusitako laguntzek, ezingo dituzte gainditu kopuru hauek:

- 117.294,99 euro, NBBEFren konturako laguntzetan.
- 85.000 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako laguntzetan.

Bigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta haren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik kontatzen

2012ko urriaren 26a, ostirala

hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik.

Hirugarrena.– Ondorioak.

Ebazpen honek, ematen den egunetik izango ditu ondorioak. Nolanahi ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 17a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.